



BROKEBACK MOUNTAIN NEW WEST LITERATURE: MITOAREN DESERAIKITZEA

IRAITZ URKULO*
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
iraitz.urkulo@euskaltel.net

LABURPENA:

Artikulu honek *Brokeback Mountain* istorioa du aztergai. Izatez, *Brokeback Mountain* Annie Proulxek idatzitako ipuin laburra da, lehendabiziko aldiz *The New Yorker* aldizkarian argitaratu zena 1997ko urriaren 13an, kritika arrakasta itzelarekin. Gerora, ipuin hau *Brokeback Mountain: En terreno vedado* liburuan agertuko zen, 1999an. Bere lana nazioartean ezagutarazteko behin-betiko aukera urte batzuk igaro ondoren helduko zitzaion Proulx: 2005ean *Brokeback Mountain*ek paperetik pantaila handira salto egin zuen. Ikerlan honen helburua *Brokeback Mountain*eko argumentuak Amerikar Mendebaleko Literaturari dakarkion eredu berria azaltzea da; horretarako, espazioa, lekua, gay identitatea eta hainbat mito, topiko zein estereotipoen deseraikitzea aztertuko dira, idazlearen estilo berezia irudikatzearekin batera.

GAKO-HITZAK: Literatura kritika, amerikar mendabaleko mitoa, deseraikitze teoriak, lekua, queer, euskaldunak.

RESUMEN:

Este artículo analiza *Brokeback Mountain*, un relato breve escrito por Annie Proulx y publicado por primera vez en la revista *The New Yorker* en 1997. En 1999 este cuento aparecería en el libro *Brokeback Mountain: En terreno vedado*. En 2005 a Proulx le llegaría la oportunidad de dar a conocer su trabajo a nivel internacional: *Brokeback Mountain* dio el salto a la gran pantalla. El objetivo de la investigación es explicar la novedad del modelo argumental de *Brokeback Mountain* en la Literatura del Oeste Americano, basada en la deconstrucción del lugar, la identidad gay y diferentes mitos.

PALABRAS CLAVE: Crítica literaria, mito del oeste americano, teorías deconstructivas, lugar, vaquero, queer, vascos.

* Iraitz Urkulo (Bilbo, 1987) *Euskal Filologian lizentziatua da EHU*n. *Literatura Konparatua eta Ikasketa Literarioak masterra egin ondoren, egun euskal literatura garaikideari buruzko tesia idazten ari da. El Correo egunkariko "Territorios" gehigarri kulturallean kolaboratzen du.*

SARRERA

Lan honek *Brokeback Mountain* istorioa du aztergai. Izatez, *Brokeback Mountain* Annie Proulxek idatzitako ipuin laburra da, lehendabiziko aldiz *The New Yorker* aldizkarian argitaratu zena 1997ko urriaren 13an; kritika arrakasta itzelarekin, esan beharra dago. Gerora, ipuin hau *Brokeback Mountain: En terreno vedado* liburuan agertuko zen, 1999an hain zuzen. Ordurako Proulx oso ezaguna zen literaturaren munduan, izan ere, 1993an Pulitzer sari ospetsua jaso zuen *Atando cabos* eleberri bikainagatik. Edozein modutan, bere lana nazioartean ezagutarazteko behin-betiko aukera urte batzuk igaro ondoren helduko zitzaion: 2005ean *Brokeback Mountain*ek paperetik pantaila handira salto egin zuen.

Ang Lee zuzendariaren eskutik, beraz, Hollywoodeko industria euskarri izateak suposatzen duen filmaren *marketing*- zein banaketa-plataforma izugarriaren laguntzaz, *Brokeback Mountain* “munduratu” egin zela esan daiteke; era honetan bestela literaturari ezinezkoa litzaiokeen zinemazaleena bezalako publiko askoz zabalago batengana iristea ahalbidetuz (gauza jakina da ikusleen kopurua irakurleena baino askoz altuagoa dela). Annie Proulx momentu oro hurbiletik jarraitu zuen filmazioa eta, behin pelikula muntatuta, ikusi zuenean poz-pezik geratu zen emaitzarekin. Autorearen erantzun sutuagatik bakarrik ziur egon gaitzke bertsiio zinematografikoak fidelitasunez jokatzen duela jatorrizko testuarekiko.

Istorioaren ibilbidea marraztu eta gero, ohartu behar dut lan honen oinarrian Annie Proulxen testua aurkitzen bada ere, zenbaitetan (hala markatuta ageri den bakoitzean, noski) ezinbesteko egingo zaidala filmera jotzea erreferentzia gehiagoren bila. Irudien esplizitutasunak idatzizkoa osa dezake alde batetik; bestetik, hautua genero biek (zinema eta ipuina) argumentu berbera ikuspegi ezberdinetatik aurkezteak, hau da, bi iturrietatik edateak, nire analisisa dexente aberastu dezakeelako ustean uler bedi.

Kontu metodologikoak argiturik jada, luzamendutan ibili barik, igaro gaitezen behingoz lanaren lehen atalera eta heldu diezaiozun *Brokeback Mountain*ek Amerikar Mendebaleko Literaturari dakarkion eredu berria azaltzeari.

1. NEW WEST LITERATURE

Denbora luzean zehar Amerikar Mendebala aipatzearekin batera irudi bakarra zetorkigun burura, hain zen indartsua mitoaren eragina: eguzkiak erruki barik jotzen duen lugorri lau amaigabea, eta urrunean, zaldi baten gainean, bizitzak zaildutako gizon bakarti-ausarta, pistola beti gerritik zintzilik daramana. Clint Eastwooden *western* generoko klasiko batetik aterea dirudien haxe bera izan da luzaroan literaturak bultzatu duen ikuspegia; “Formula Western” deitutakoa jarraitzen zuen korronteak duela mende eta erdi muturreraino eramane zuena, bide batez.

Gerora, munduaren martxari eusteko ahaleginean nonbait, zenbait osagai gaurkotu eta garai modernoari egokitzeko beharrari erantzun zion literaturak. Modu honetan, argumentua hirigunera aldatu zen, horrek suposatzen dituen aukera berri guztiekin: asfaltozko oihana testuinguru gisa, bizimodu burges eroso, zerbitzu anitz eskura izatea, aukera zabalak indibiduen garapenerako (aisialdirako, hezkuntza duin bat jasotzeko, lanbiderik egokiena hautatzeko zein beste edozein alderdirako)... Amerikar Mendebaleko gizarte-irudi kolektiboak literaturak baliatuko zituen estereotipo berriak ekoiztu zituen, baina esan daiteke eraldaketa azalezkoa baino ez zela izan, esentzian aurretik existitzen ziren topiko asko eta asko defendatzen jarraitu baitziren: mugikortasuna eta mugak zeharkatzeko erraztasuna (*american mobility*), Mendebala ametsak egia bihurtzen diren lurralde gisa identifikatzea (*promised land*), hutsetik bizitza berri bati ekiteko aukera (*american dream*), aberats bilakatzea eta dirua esfortzu barik lortzeko agindua (*easy money, easy life*), askatasuna gozatzea (*land of freedom*)...

Orain arte ikusitakoaren argitan, non kokatu dezakegu, bada, aztergai dugun istorioa? Begirada azkarra botaz gero, badirudi *Brokeback Mountain*ek zerikusi handiagoa daukala hasiera batean aipatutako joera bukolikoarekin; azken finean, bi cowboyek (egiatan artzainak dira, baina tira) lurralde isolatu eta gogor xamar batean bizitakoak kontaktzen zaizkigu. Baina irudikapen faltsu honek ez gaitzala itsutu. *Brokeback Mountain* eredu bukolikotik oso urrun kokatzen da, izatekotan, nik esango nuke genero anti-bukolikoa dela Annie Proulxek lantzen duena. Autore honen literatura moldearen ekarpen berritzailea horretan datza hain zuzen, mendeetan zehar finkatutako amerikar estereotipo eta topiko nagusiei kontra egitean; hitz bitan, lan honen azpitutuluak dioenez, mitoaren deseraikitzean. Amerikar Mendebaleko bizimoduan txertatzen den edukiaren trataera berezi horrek egiten du erakargarri, nire ustean, Wyomingeko bi cowboy xumeen narrazioa.

Literatura sorkuntzak Amerikar Mendebalera hurbiltzeko kasu honetan proposatzen digun bide berriaz ohartzeko, argumentua osatzen duen ehuna harilkatzeko erabili dituen osagaiak eta horien erabilera aztertzea besterik ez dago. Eta horixe da jarraian, elementuak banan-banan harturik, hurrengo ataletan egingo dudana: Amerikar Mendebalaren inguruko mitoak deseraiki *Brokeback Mountain* istorioaren bitartez eta, bide batez, ipuin honek Amerikar Literatura Berriko (*New West Literature*) eredutzat zergatik hartu behar den azaldu.

1.1. Espazioa

“Espazio” hitzak, aurrerago agertuko den “leku” terminoak ez bezala, alderdi fisikoari egiten dio erreferentzia, hura erabiltzean neurria, distantzia eta maparen gaineko mugimenduak islatzera mugatzen den kontzeptu batez ari gara. Espazioak aurpegi anitz izan baditzake ere, literaturan duen funtzio nagusia ekintza kokatzearena da zalantza barik. Espazioa arduratzen da pertsonaiak eta, batez ere, protagonistak testuinguru jakin batean txertatzeaz.

Kasu honetan, *Brokeback Mountain: En terreno vedado* liburuko istorio guztiak Wyomingen kokatu nahi izan ditu Proulxek, eta aztertzen ari naizen ipuina ez da salbuespena. AEBetako mendebal ertainean kokatzen den estatua dugu Wyoming. Ez da alferrik Wyoming pentsakera kontserbadore-atzerakoi-itxiko Amerika sakonaren ordezkarietat jotzen. Kostalderik gabeko lurralde menditsua da, hortaz. Iparralderantz begira, Kanadako herrialdetik hurbil xamar geratzen da, bestalde, eta horrek (berehala konprobatuko dugunez) klimatologian eragin nabaria dauka ezinbestean.

Protagonistak, esan bezala, Wyomingen jaiokoak dira biak. Honelaxe adierazten zaigu, ipuina hasi bezain laster, bakoitzaren kokapen zehatza: *Los dos se criaron en ranchitos pobres situados en extremos opuestos del estado, Jack Twist en Lightning Flat, junto a la frontera de Montana, Ennis del Mar en los alrededores de Sage, cerca de los límites de Utah* (2. or.). Wyomingeko mapari so eginez, beraz, Lightning Flat estatuko ipar-ekialdeko mugan kokatuko litzateke eta Sage, aldiz, hego-mendebalekoan, hau da, kontrako izkinean hain justu. Jaioterriak utzita, lan bila abiatu, bi pertsonaia nagusiak Brokeback Mountainen elkartzeko dira. Brokeback Mountain asmatutako espazioa da, ez da egiazki inon existitzen, ez da errealitatean bisitatu daitekeen mendia; halere, Signal herriko iparraldera, hor nonbait aurkitzen dela kontaktzen zaigu. Datu hauen arabera, Brokeback Mountain Wyomingeko ipar-mendebalean kokatu beharko genuke, Montanarekin mugan.

Testua ez datematzen Wyomingeko paisaiaren inguruko deskribapenetan. Egia esan, istorio idatzian ez zaio apenas arretarik eskaintzen alderdi honi; zertzelada gutxi batzuk baino ez zaizkigu ematen: *Los pastizales de verano quedaban por encima del límite de la zona arbolada...* (3. or.), *amplios prados floridos...* (5. or.), *ladera abajo los enhiestos pinos... gigantesca masa negra de la montaña* (6. or.). Pelikulan, ordea, argazkigintza zainduaz gozatzeko parada dago: berde kolorearen nagusitasunak giro hezea salatzen du; horrez gain, urez gainezka doazen errekatxoak ere badira, landararik gabeko gailur

altu arrokatuak... eta azpian, argia pasatzen uzten ez duten pinuez osaturiko baso itzela, hartzen eta beste hamaika animalia espezieren bizileku dena. Ardiek belar freskoa bazkatzeko zelaietara iristeko mendian gora gidatu behar du artzainak artaldea, lurraren egoera maldatsua dela eta.

Liburura itzuliz, oso deigarria da *Brokeback Mountain*en protagonisten egonaldia ohi baino lehenago amaitzeko arrazoa: elurraren agerpen goiztiarra.

Las primeras nieves cayeron pronto, el trece de agosto, una capa de treinta centímetros que no tardó en fundirse (...) otra tormenta mayor se aproximaba desde el Pacífico (...) los guijarros rodaban a su paso, nubes moradas avanzaban desde el oeste y el olor metálico de la nieve que iba a caer avivaba su marcha. La montaña hervía con demoníaca energía, relumbraba bajo la intermitente luz de las nubes desgarradas, el viento peinaba la hierba y arrancaba un zumbido bestial a los achaparrados arbolillos que coronaban el bosque y a las grietas de las rocas (11. or.).

Naturaren ikuspegi honen berezitasuna ez datza bakarrik istorio labur honetan aurkitu daitezkeen paisaian oinarritutako deskribapen bakarrenetakoa izatean. Izan ere, ipuinean zein filman, zerbait argi geratu bada eskaintzen zaigun espazioaren irudia Amerikar Mendebaleko paisaia ideal klasikoarekin bat ez datorrela da. Esaterako, denok gogoan dauzkagun lautada lehor amaigabeak kontrastean aritzen dira aipatutako baso eta mendiek erakusten duten lora eta fauna aberatsarekin.

*Far West*eko paisaiak ez zuen inongo hezetasunik gorde, lurralde babesgabe hori zeharkatzen zuten gixajoen azalean behera irristatzen den izerdia kontuan hartzen ez badugu behintzat. Beroa jasanezina omen zen, gainera ez

zegoen zuhaitz gehiegi inguruan itzalaren freskotasuna bilatu ahal izateko. Zirriborratzen ari naizen ingurua zakarra da etxeko abereak mantentzeko, zer esanik ez han bizirauten zuen jendearentzat. Ikusten denez, garai bateko espazioak zerikusi gutxi dauka *Brokeback Mountain*eko argazkiarekin; azken honetan, aurrekoan ez bezala, geografia arras irregularra da (mendi-bailaren kobinaziotik sortua), klima hotz xamarra da (temperatura baxuak ohikoak dira), urik ez da falta eta lurra guztiz emankorra da (baldintza aproposak dira, beraz, bizitzaren ugalketarako). Amerikar Mendebal klasikoan ez zuen euririk egiten (horretaz jabetzeko lurreko arrailei begirada bat botatzearekin nahikoa zen), are gutxiago espero genezakeen Proulxek deskribatutakoaren moduko ekaitz bortizik; narrazioan, ordea, elurra eta guzti ageri zaigu, western genero zaharrak nekez onartuko zukeena.

Arrazoi hauengatik *Brokeback Mountain* Amerikar Literatura Berriaren barruan sailkatu beharra dago, obran erabili izan den eredia, espazioari dagokionez, berria ez ezik, aurreko tradizioarekiko urruntzen den heinean, apurtzailea ere badelako. Nolabait adieraztearren, esan dezagun Annie Proulxen ekarpena Mendebala iparralderantz hedatzearen erabakia izan dela, literatura genero honetarako aukerak espazioaren proportzio berean zabalduz.

1.2. Lekua

Brokeback Mountain, ezer baino lehen, leku sinbolikoa da bi protagonistentzat. Giza-identitatearekin lotuta dagoen espazio emozionala da batez ere. Oso garrantzitsua da istorio honetan leku-rolak eskuratzen duen boterea, nahiz eta alderdi hau filman ipuinean baino askoz nabarmenago agertu. Agerikoa da, adibidez, Wyomingeko bizi-baldintza gaiztoek protagonistengan eragiten duten jarrera estoikoa; azken batean, biziraupenaren aldeko filosofia da inguratzen dituen dekadentziari ohitzera daramatzana. Egoera penagarriari, ziur aski, paisaiaren desolazioa eta klimatologia gogorra gehitu beharko litzaizkioke, naturako elementu hauek, determinismo geografikoaren eraginez

nolabait, pertsonaien pertsonalitate eta izaera mugatu eta moldatu egiten baitituzte. Artzaina eta cowboya, zentzu honetan, naturak zaildutako gizon eredu argiak direla esango nuke.

Paradoxikoa irudi lezakeen arren, Brokeback Mountainek ez-leku gisa hartua izateko baldintzak betetzen dituela defenda daiteke. Alde batetik, eremu hori inoren ohiko bizilekua izatetik urrun, iragaite-lekua, edo berdina dena, denbora epe labur batez (negua iritsi arte, eguraldi onak iraun bitartean) artaldea bazkatzerara hara eramaten duten artzainen behin-behineko aterpea baino ez da. Ondo pentsatuz gero, Brokeback Mountain intimitate eta isolamendu irizpideak betetzen dituen edozein leku izan zitekeen. Sarreran aipatu dut protagonista biak Brokeback Mountainen mundutik at bizitako momentuei bukolismo kutsu indartsua dariela, eta egiazki hala da, bizitza osoan ahalegindu arren ezingo baitute inoiz han gaztetan elkarrekin esperimentatutakoa berriz sentitu eta Brokeback Mountain eta berreskuratu ezingo duten iragan komun bat idealizatzearekin konformatzen dira. Bi cowboyen arteko maitasun istorioaz ari naiz, noski.

Orain arte hitz egin dugu lekuak pertsonaiengan izan dezakeen eraginari buruz. Bada ordua, jada, kontrako fenomenoaz aritzeko. Azken finean, Brokeback Mountain, berezko esanahirik ezean, gorde duen sekretuak definitua dela iruditzen zait; gizarteak gaitzetsitako protagonisten gay nortasuna askatasun osoz bizi dezatela ahalbidetzen dien neurrian eskuratzen du garrantzia lekuak. Agian gehiegi esatea da, baina nire ustez Brokeback Mountain bikote protagonistaren “paradisu homosexual partikularra” (adi “paradisu” terminoaren konnotazio ideal-mitifikatzaile-bukolikoei) bilakatzean lortzen dena zera da: identitate sexual jakin baten (homosexualitatea hain zuzen) eta lekuaren arteko identifikazioa gertatzea.

Halere, bada norbait paradisu izendatu berri dugun honetan arnasten den zorientasun giroa urratzera datorrena: Joe Aguirre arduraduna. Gizon honek,

Jacki haren senideen partez mezu bat igortzera igotzen denean larreetara, prismatiko batzuen laguntzaz ikusten ditu bere agindupean lan egiten duten bi gazteak jarrera “susmagarri” batean. *Creían ellos que eran invisibles, sin saber que un día Joe Aguirre los había estado observando a través de sus prismáticos 10 X 42 durante diez minutos* (10. or.). Hurrengo urtera arte ez dute jakingo, ordea, bakarrik zeudela uste zutenean egiatan zelatatuak izan zirela, Jack Twist lana eskatzera itzultzen den egunean Joe Aguirrek honelaxe hitz egiten dion arte: *Por lo visto encontrasteis una buena forma de pasar el tiempo ahí arriba, ¿verdad? (...) Twist, no os pagué para que dejarais a los perros de canguro con el rebaño mientras os lo montabais* (19. or.). Hona hemen espazio ustez intimo baten bortxaketa garbia. Gertaera honek frogatzen du pribatutasuna, erabatekoa izatekotan, isolamenduarekin ez dela nahikoa eta ikusezintasuna zaintzea funtsezkoa dela.

Iruzkina muinera bueltatuz, Brokeback Mountain protagonisten baitako inplikazio emozionalen arabera definitzen da. Ondoko aipuan (nire iritziz, ipuineko baieztapenik borobilena barne hartzen duena) antzeman daitekeen bezala, testuak, pertsonaia nagusien diskurtsoaren bitartez, zentzu sinboliko pertsonal bat egokitzen dio lekuari: *... podríamos haber estado muy bien juntos, cojonudamente bien. Pero tú no quisiste, Ennis, así que ahora nos queda Brokeback Mountain. Todo se basa en eso. Es todo lo que tenemos, tío, ésa es la puta verdad* (29. or.). Leku horrekiko konexio sentimental berezia aditzera ematen duen beste adibide bat amaieran bertan aurkitu daiteke, Ennisek, Jack hilda dagoela jakin eta gero, Brokeback Mountaineko paisaia ikusten den postala erosi eta bere karabana zaharraren atetik zintzilikatzen duenean, odolez zikindutako Jacken alkandoraren ondoan.

Arrazoi osoa dauka Jackek “todo se basa en eso” dionean. Esan bezala, Ennis eta Jack berak osatutako “bikotea” beraien sexualitatea garatzeko behin eta berriro ihes egiten dute etxetik, familia atzean utzita askatasunean maitasunaz gozatu ahal izateko. Horretarako, haiek ezagutzen dituzten, batez ere, inork

haiek ezagut ditzakeen inguruetatik urruntzen dira, jenderik gabeko lekuak aukeratuz. Ihesaldi horietan guztietan natura ez beste bihurtuko da bion arteko harremanaren konplize. Konturatzen bagara, istorio labur honetan nazioarteko literaturan hain arrunta den bidaiaren baliabidea (literatura klasikoraino atzera egin beharko genuke baliabide honen hastapenetan arakatzeko) erabili da, giza-identitatearen bilaketaren metafora gisa. Esan daiteke bidaietan, sexu-grina asetzeaz gain agerikoa denez, maila espiritual batean batzeko, beraien homosexualitatea elkarren laguntzaz berresteko nahi bada, aprobetxatzen dutela protagonistek.

1.3. Gay identitatea

Ipuin honetako gairik garrantzitsuena, baita polemikoena ere zalantzarik ez, sexualitatearena da. Azken batean, Brokeback Mountainen berezitasuna horixe dugu: ez dira cowboy kanonikoak, homosexualitateak Wyomingeko gizarteak bortizki aplikatzen duen normaltasunaren kontzeptutik kanpo uzten dituen heinean. Ikusten denez, beste behin lekua ezinbesteko bihurtzen zaigu protagonisten jokabidea ulertzeko orduan. Izan ere, pertsonaia hauek istoria osoan zehar Wyomingeko lurralde zabalean zilegi omen den arau sexual bakarraren menpe ageri dira, heteronormatibitate derrigorrezkoaren menpe alegia. Leporatu dakieke ez direla itotzen dituen egoera aldatzera ausartzen, hau da, beraien sentimenduak publikoki askatasun osoz agertzeko adore nahikorik ez dutela biltzen. Kontaketak ondo azaltzen du, Ennisen haurtzaroko gogoeta latz baten bidez, bi cowboyen portaeraren atzean ezkutatzen den beldur izugarriaren arrazoia soberan justifikatuta dagoela:

Jack, no quiero ser como esos tipos a los que a veces se ve por ahí. No quiero que me maten. En mi pueblo había un par de viejos que llevaban un rancho entre los dos, Earl y Rich... mi padre siempre soltaba alguna guasa cuando los veía. Eran el pitorreo general aunque eran un par de bigardos. Yo era un

chaval de nueve cuando encontraron el cadáver de Earl en una acequia. Lo habían machacado con la palanca de un coche, le clavaron un gancho y lo arrastraron por la polla hasta que se la arrancaron, no quedaba más que un amasijo de sangre. Y los golpes de la palanca parecían trozos de tomates quemados por todo su cuerpo, tenía la nariz machacada de haber barrido el suelo con ella (20. or.).

Pasarte honek agerian uzten du Amerika sakona deitu ohi denaren pentsamendu itxia berrikuntza suposatzen duen guztiaren aurrean, muturreraino eramana den ideologia kontserbadorea, indarkeria eta intolerantzia onartezinak ezberdina denarekiko... *Brokeback Mountain* kristau kutsuko amerikar morala ezbaian jartzen duen istorioa da, Mendebaleko mito nagusietakoa den cowboyaren estereotipo zaharra suntsitu eta horren orde irudi berri bat eraikitzearekin batera, gay nortasunari buruzko aurreiritziak gogor salatzen dituen. Bestetik, gaur egun oraindik ere han-hemenka homosexualen aurkako erasoak gertatzen badira, zer ez genuke espero 60ko hamarkadan Wyomingeko lurralde arrotz-basatian?

Zentzu honetan, zapalkuntzaren mehatxua hain agerikoa denean, ez da harritzekoa, areago, nik esango nuke erabat ulergarria dela momentu jakin batean protagonisten arteko ondoko elkarrizketa laburra: *Ennis dijo: “Yo no soy maricón”, y Jack se apresuró a dejar claro: “Yo tampoco”* (10. or.). Esanguratsua iruditzen zait “homosexual” edo “gay” hitzak erabili beharrean Proulxek “maricón” hitza aukeratu izana, gaitzespenera jotzen duen balio konnotatiboa dela eta. Edozein modutan, lehen begiratuan kontraesankorrek diruditen baieztapenoi interpretazio erraz bat aurkitzen diet; azken finean, Ennisek eta Jackek beraien buruak maritxu gisa onartzeari uko egiten diotenean, hitzak sortu eta hazi diren komunitatean agintzen duen heteropatriarkatuaren arrastoa oso markatua da eta, beraz, zeharo antzemangarria.

Horrela, Ennisek Jackekin lehenengo harreman sexuala eduki eta gero botatzen duen “yo no soy maricón” horrek egiazki esan nahi duena da bera “ezin dela maritxua izan”. Alde batetik, norberaren sexualitatearen ukazioa, bereziki sexualitate hori gehiengo zabalaren aukera ez denean, gizabanakoaren baitan burutzen den prozesu natural baten parte bezala ulertu beharko litzateke ziurrenik; hortik pertsonaiek behin baino gehiagotan agertzen duten beren jokaera justifikatzeko kezka. Beste aldetik, protagonistak ezin dira gayak izan, edo berdina dena, ezin dute gay identitatea defendatu bestean aurrean; Wyomingen ez baita “existitzen” (ez delako publikoki onargarria) heterosexuala ez den beste aukera sexualik. Eta ez dugu ahaztu behar inguru horretan gay nortasunaz harro agertzeak heriotzarekin, existentziarik ezarekin ordaintzen dela. Irteerarik gabeko egoera da, horrexegatik protagonistak beren sentimenduekiko fideltasunez jokatzera ausartu izan balira ere, alferrikakoa litzateke. Ikusgarritasunaren irizpidea oinarrizkoa da, ondoko aipuak erakusten duenez:

- *¿Les pasa esto a otros? ¿Qué coño hacen los demás?*
- *En Wyoming no pasa, y si pasa yo qué sé qué hacen, irse a Denver, quizá*
(21. or.).

Ennisen hurrengo hitzek, Jacki zuzentzen zaiolarik, eztabaidari beste ikuspuntu bat gehitzen diote: *¿Sabes una cosa?, he pasado mucho tiempo tratando de averiguar si era... Y sé que no lo soy. Y si no mira cómo estamos, los dos con mujer e hijos* (18. or.). Hemen familia herriko jendearen zurrumurrueetatik libratzen dituen estalkia da. Ezkontza, seme-alabak... familia-eredu tradizionalaren itxurak haien benetako izaerak ekarriko lizkiekeen arriskutik edota bestelako ondorio txarretatik salbu mantentzen ditu. Paradoxikoa irudi balezake ere, gure cowboyek familiaren beharra dute bere harremanaz gozatu ahal izateko, beraien artekoa gainerakoentzat susmagarria izan ez dadin. Pertsonaien karakterizazioa dikotomikoa da zentzu honetan,

gizartearen biktima eta emazteen borrarero baitira aldi berean. Halere, esperokoa zenez, berandu baino lehen bai Jack bai Ennis emazteengandik banatzen dira, harreman heterosexualaren gezurrarekin jarraitu ezinik porrota besarkatuz, nonbait.

Pertsonaia nagusiak, noski, testuingurutik kanpo aurkezten zaizkigu ipuinean. Maitasun-agerpenak eremu pribatura mugatzea beste aukerarik ez dute. Argumentuak ederki azaltzen ditu halako harreman bat aurrera eramaterakoan bidean sortzen diren oztopo ugariak, sarri, kasu honetan bezala, bikotearentzat gaindiezinak suertatzen direnak. Irtenbide bakarra Jackek Ennisi proposatzen diona liteke, elkarrekin alde egitearena, beste lekuren batean bizitza berri bat hasteko. Baina azkenean beldurra irteten da garaile eta biok jaio diren eta hainbeste sufrimendu eragiten dien Wyomingeko lurrari iltzaturik nonbait, itxaropenik gabeko orainari ahal duten bezala eusten diote.

Adierazgarria da konprobatzea nola literaturan gay pertsonaiek amaiera nagusi bi izan ohi dituzte: bata zoriontsua, baserri-girotik hirigunerako ihesa burutzen dutenean; bestea tragikoa, arrazoi ezberdinengatik, hilda bukatzen dutenean. Ipuin honetako protagonisten amaiera azken mota honetakoa da: Jack bere furgoneta zaharreko gurpiletako bat konpontzen ari denean, gurpilak eztanda egin eta hagonak aurpegian jotzen dio bete-betean. Ezbeharraren ondorioz gizonak bizia galtzen du, bere odolean itota, Ennis bere heriotzak eragiten dion oinazea bakardaderik latzenean sufritzeraz kondenatuz.

1.4. Mendebaleko literaturaren estereotipo eta topiko nagusiak deseraikitzen

1.4.1. *American mobility*

Mendebaleko literaturan bizimodu nomada daramaten pertsonaia mitikoekin topo egin dezakegu, lanagatik hiriz hiri edota estatuz estatu

mugitzen direnak, zer esanik ez ekialdeko kostaldetik Pazifikora iristeko 66. errepede famatua hartuta Estatu Batuak puntaz punta zeharkatzen duten horiek... Baina *Brokeback Mountain*eko bi cowboy protagonistek, ordea, ez dute joera hori jarraitzen. Nahiz eta bidaia ugari egiten dituzten bizitzan zehar beren harremana inguruko jendeari (beraien emazte eta seme-alabei barne) ezkutatzeko asmoz, ez dira sorterrarekiko inoiz gehiegi urruntzen. Beti Wyomingeko estatu-mugen barruan bilatzen dute intimitatea, paradisu naturaletan barrena elkarrekiko maitasunaz gozatuz:

Año tras año continuaron recorriendo prados altos y cuencas fluviales, cargando los pertrechos a lomos de sus caballerías en la cordillera Big Horn, los montes Medicine Bow, las estribaciones meridionales de las Gallatin, las montañas Absaroka, las Granite, las Owl Creek, la sierra de Bridger-Teton los montes Freezeout y los Shirley, los Ferris y los Rattlesnake, la cordillera de Salt River, se adentraron una y otra vez en los montes Wind River, en Sierra Madre, en Gros Ventre, en las Washakie y las Laramie, pero nunca regresaron a Brokeback Mountain (24. or.).

Ez dira bidai luzeen zale, Ennis bereziki, ezaguna duen Wyomingeko lurraldea uzteak izutzen baitu.

– *Tenemos que ir al sur. Tenemos que ir a México algún día.*
– *¿México? Jack, ya me conoces., No he hecho más viajes en mi vida que dar vueltas a la cafetera buscando el asa (28. or.).*

Ematen du Jackek aurrea hartzen duela gai honetan, rodeoetara dedikatzen denez, lehiaketa batetik bestera ibiltzeak leku gehiago ezagutzeko aukera eskaini diolako, Wyomingen bertan nahiz estatutik kanpo. Hori noizbehinka Mexikora egiten dituen joan-etorriak kontuan hartu barik,

mutilekin konpromisorik gabeko sexua mantentzeko.

1.4.2. *The Cowboys*

Janzkerari dagokionez ez dago inongo zalantzarik, pertsonaia nagusien itxura cowboy tipikoarena da: bota pare zaharra, *blue jeans* higuatuak, laukidun alkondara, gerriko ikusgarria eta, irudia osatzeko, hegal zabaleko kapelaren ukitua. Eta zaldi gainean dabiltzanean ere ez zaie osagarririk falta: eskopeta, sokak, tapakiak, harmonika, etab... Cowboy klasikoaren eredua ez da iraultzen, beraz; ez du aldaketarik jasaten.

Itxura fisikoaren gaia argituta, oraindik galdera asko pilatzen zaizkit: *Brokeback Mountain*eko protagonistak heroiak dira? Eta bakartiak? Indartsuak agian? Ausartak ote? Edo Maskulinoak? Erakargarriak akaso? Saiatuko naiz, testuaren laguntzaz betiere, galdera guzti hauei banan-banan erantzuten.

Annie Proluxek asmatutako pertsonaiak zeharo anti-heroikoak izan ohi dira, galtzaile hutsak gehienetan. Nik esango nuke istorio honetan ez dagoela benetako heroirik, amaiera begiratzea besterik ez dago: Jack hil egiten da eta Ennisek ilusio barik bizirauten du, baldintza penagarrietan, bakar-bakarrik. Ez bata ez besteak ez dute zoriontasun egonkor bat eskuratzen, horren orde ez elkarrekin egiten dituzten bidaietako une zorionsuak baino ez dituzte gogoan. Heroitasuna ausardiarekin estuki lotuta dagoela ontzat emanez gero, bikote honen jarrera ez da batere heroikoa; beren maitasuna gizarte-inposaketan aurka defendatzen ahalegindu izan balira sikiera...

Zaila da zehaztea nor izan daiteken pertsonairik indartsuena ipuin honetan, beraz protagonistak arrantxoetako bizimodu gogorrera eta lan fisikora ohituta daudela baieztatzea mugatuko naiz: abereak atenditu, artzain gisa ardiak zaintzeko hilabeteak igaro isolamenduan, hesiak jaso, etab. Erakargarritasuna kolokan jarri beharko genukeen alderdia da; behintzat protagonisten fisikoan

oinarritutakoa, hurrengo deskribapenen argitan:

A primera vista Jack no era mal parecido, con el pelo rizado y la risa fácil, pero le sobraban algunos kilos en las caderas dada su escasa altura y su sonrisa revelaba unos dientes que se proyectaban hacia delante (...) Ennis, de nariz con pronunciado caballete y semblante estrecho, desgarbado y con el pecho un poco hundido, balanceaba un torso menudo sobre largas piernas tipo compás, poseía un cuerpo musculoso y elástico hecho para la equitación y las peleas (4. or.).

Bakardadea da, zalantza barik, istorioan gehien nabarmentzen den ezaugarria. Cowboy protagonistak Brokeback Mountainen elkar ezagutzen dutenean bakarrik daude, eta isolamenduan, zibilizaziotik urrun. Gero, egunerokotasunera bueltan, familia bat osatzen gogoz saiatzen diren arren, azkenean biok porrot egiten dute bizitza sentimentalean. Maitasuna galarazten zaien bezala, elkarrekiko konpainia ere; bakardadera kondenatuak izan dira, ezinbestean, eta egoerak ez dauka itzulerarik. Jack, rodeoetako lana dela eta, hilabeteak pasatzen ditu sorterritik kanpo, ez du bizileku finkorik. Eta Ennisi dagokionez, bera bai dela bakardadearen irudi deitoragarria, amaierako eszenan Jacken heriotzagatik aurpegia ilunduta aurkezten zaigunean.

Aurreko atalean Proulxen ipuinak sexualitatearen ikuspuntutik Mendebaleko literaturaren kanon heteropatriarkala deseraiki eta gainditzen duela konprobatu ahal izan dugu. Orain, bada, arreta generoan jartzea tokatzen da. Orokorrean, narrazio honetako gizonak nahiko ondo egokitzen zaizkio eredu maskulinistari, maskulinitate ezin markatuagoa momentu oro agertzeraino. Cowboyen itxura tipikoarekin gutxi balitz, Jack *rodeo man* ausart bat da, kolpeak jasotzera ohituta dagoena eta bere balioa zezenaren gainean frogatzeko prest bizi dena. Ennisek nire iritzian txarto bideratutako maskulinitatea erakusten du bi une jakinetan: lehenengoa, rol sexual aktiboa

bereganatzen duenean horrek gizonago bihurtzen duelako ustean; bigarrena, Alma emazte ohiarekiko rol boteretsua hartzen duenean, genero-indarkeria agerian uzten duen pasarte desatseginean, hain zuzen. *Ennis la agarró por la muñeca; saltaron lágrimas, un plato se estrelló contra el suelo (...) Le retorció otra vez la muñeca hasta dejarle una marca como una pulsera candente, se puso el sombrero al revés y salió pegando un portazo (23. or.).*

1.4.3. *Land of Freedom*

Wyoming gizarte aske ideal baten antitesia izango genuke. Bikote protagonistarentzat, adibidez, lurralde hau eta bertako biztanleen arau murriztaileak beren sufrimendu existentzialaren jatorri dira. Irudikatzen zaigun gizartea benetan itogarria, itxia, atzerakoia, intolerantea, bortitza da. Ez da askatasun zantzurik nabari inon. Horrexegatik, pertsonaia nagusientzat ez da existitzen askatasunaren lurralde ideal hura, oinaze eta itxaropenik ezarena baino. Oztopoak oztopo, halere, cowboyek ez dute jaio diren estatua abandonatzen, aukeratu ez duten bizimodu batera kateaturik ageri dira, haien identitatea sekula onartuko ez duen komunitate batean sufrimendua pairatzera kondenaturik. Askatasun lurraldearen deseraikuntzak hurrengo atalean landuko ditudan “amerikar ametsa” eta “promestutako lurra”ren kontzeptuekin zerikusi handia dauka.

1.4.4. *American Dream / Promised Land: Easy money, easy life*

Jada aurreratu dut *Brokeback Mountain* ipuinak ez duela bukaera zoriontsurik eskaintzen. Istorio hau Amerikar Mendebalean ametsak egia bihurtzen direla eta dena posible delako mitoa deuseztatzen dator. Argumentoa gainbehera-giro sozial eta pertsonalean txertatzen den neurrian, esan daiteke Amerikar mendebaleko literaturaren kontzepzio erromantiko-idealista erotik zapuzten duela. Wyomingeko baserri-inguruan ez dago tokirik itxaropenerako, ezta norberaren ilusioak gauzatzeko ere. Horren ordean, desilusioa eta frustrazioa

nagusitzen dira, ipuinak hasiera-hasieratik argi uzten duenez; hauxe da, narratzailearen arabera, protagonistei espero dien etorkizun latza, jaiotzetik haientzat markatutako patua aldagaitza bailitzan:

Ambos chicos de pueblo que no acabaron la secundaria y sin perspectivas de futuro, de modales toscos, rudo hablar, educados en el trabajo duro y las privaciones, curtidos por una vida estoica (2. or.).

Askotan saldu izan zaigu Amerikako Mendebalean dirua erraz lortu daitekeela eta, horrenbestez, bizimodu burges erosoaren denon eskura dagoela. Irakurritakoaren arabera, gure protagonisten kasuan topikoa ez da betetzen, kontrara ez bada (mitoa ukatuz, alegia). Cowboy arropa gastatuz ohartzea besterik ez dago arrantxoko beharrak luxuetarako ematen ez duela konturatzeko. Oro har, nahiko bizimodu xumea daramate bizitza osoan zehar. Hori bai, Ennisen egoerak okerrera jotzen du Almarengandik banatzen denean; momentu horretatik aurrera lan batetik bestera saltoka hasiko da, oso baldintza txarretan gainera, zaldiak garraiatzeko atoiari kroatuta daukan karabana zaharra bizileku bakar duela. Azkenik, Jack gaztetatik daukan, beti hondatuta dagoen eta txitean-pitean konpontzen ibili behar den furgoneta zaharraren egoera tamalgarri-arriskutsuaren erruz hiltzen da; nolabait, txirotasunak eragindako heriotza delakoan nago.

Ipuina ixten duen esaldiak ere, bere laburtasunean, ez du zalantza izpirik uzten. Azken finean, hauxe indiferentziarik krudelenean ahal bezain ondo egokitu eta biziraupena beste helbururik ez duten bi pertson(ai)en inguruko narrazio hunkigarria da; baina, batez ere, gabezia moralak eta giza-ahuldadeak agerian jartzea bilatzen duen testua dugu.

... cuando algo no tiene remedio, hay que aguantarse (39. or.).

1.5. Bi euskaldun bigarren mailako pertsonaien artean

Euskaldunek AEBetan gutxiengo etniko garrantzitsua eratzen dute. Eta historikoki kontinente berrian lehorreratu zirenean artzain lanetara dedikatu ziren, oso emaitza onekin. Proulx autoreak jakinaren gainean omen zegoen eta Wyomigeko baserri-eremua testuinguru aproposa dela eta, *Brokeback Mountain*en bigarren mailako pertsonaien artean euskaldun bi tartekatzea erabaki zuen: bata izenik gabekoa eta bestea Joe Aguirre.

Izenik ez duen pertsonaia euskaldunaren ingurukoak komentatzen hasiko naiz. Testu idatziak *un vasco de piernas arqueadas* (5. or.) aipatzen du. Horixe da indibiduo honi buruz kontatzen zaigun bakarria ardiak prestatzen protagonistei eskainitako laguntza albo batera utzita, eskasa izateaz aparte informazio batera erabilgarria ez dena, bide batez. Gainera, bitxikeria gisa onar bekit, filmean (euskal bertsiotan barne) pertsonaia honek euskalduntasuna galdu du nolabait (euskal identitateari erreferentzia oro ezabatu egin da) eta mexikar peto-peto baten itxurak gorde ditu.

Joe Aguirrek pisu handiagoa dauka argumentuan. Istorioan zehar gizon hau euskalduna dela adierazten ez zaigun arren, euskal abizenak salatzen ditu bere erroak. Joe Aguirrek badu bere garrantzia trama honetan, berak Ennis eta Jack kontratatu izan ez balitu *Brokeback Mountain*en ardiak zaindu zezaten, protagonistek ez zuketuen intimatzeke inongo aukerarik izango. Horrez gain, badira zenbait polemika Aguirre pertsonaiaren inguruan, agerpen bakoitzeko bana, hain justu. Lehena kontratazio momentuan bertan kokatu daiteke, eta agian honakoa aurreritziatan oinarritutako interpretazio pertsonala baino ez da, baina esango nuke sarkasmo eta deserosotasun puntutxo bat dagoela eszena horretan; izan ere, euskal etorkin batek lanean bere ardurapean bi anglo izateak hauen miseria-sentsazioa areagotzera dextente laguntzen du. Bestetik, Joe Aguirre eredu ona da euskal inmigratzailearen irudi literarioaren bilakaera azaltzeko. Dagoeneko euskalduna ez da artzaina, orain, nahiz eta ardi

negozioan segi, langileburu lanetan aritzen da. Aurrerapausu esanguratsua da, zalantzarik ez.

Lekua eta ikusgarritasunaren kontzeptua aztertu ditudanean azaldu dut Joe Aguirrek prismatiko batzuen bidez bikote protagonistaren intimitatea urratzen dueneko aldia. Hainbat kritikok pasarte horretan Joe Aguirreren ustezko homosexualitatea iradokitzen dela defendatu dute, eta testuak alderdi hau ukatzen ez badu ere, nik ez dut ikusten halako hipotesia eusteko arrazoi sendorik. Zerbait izatekotan, *voyeur* bezala hartzea aproposagoa iruditzen zait, baina horrek ez du inplikatu behar inondik inora Aguirrek mutilekiko desira sexuala sentitzen duenik. Ziurrenik irakurketa-mailako gaizki ulertu bat gertatu da Joe Aguirreren jokaerari dagokionez. Azken batean, urrunetik begiratzea ez da berez ezer adierazgarria, pertsonaiak ezer espresatzen ez duen heinean, eta kasu honetan Aguirrek ez du ikusten ari denagatik nazka aurpegirik jartzen... ezta atsegin keinurik egiten; halere, susmoa daukat, gerora Jacki zuzenduko dizkion gustu txarreko hitzak direla eta (egun horretan gertatutakoa eta berak ikusitakoarekin lotuta), Aguirreren sentipena gaitzespenetik hurbilago egon daitekeela.

2. ANNIE PROULXEN EZAUGARRI LITERARIOAK

Jill Vejnoscak *Atlanta Journal-Constitution*ean argitaratutako kritikan dio Annie Proulx ez dela autore erraza, kontu ezezagunei buruz idazten duelako. Erabat ados nago, Proulxek uko egiten dio istorio hurbilak kontatzeari, nahiago du, tonu zirikatzailea baliaturik, argumentu eta egoera deserosoak sortu, hauek irakurlearen kontzientzia esnarazi dezaten. Bere helburua lortzeko, egiantza eta transgresioaren arteko mugan aritzen da jolasti. Deigarria da darabilen hizkera gordina, irainez gainezka dagoen hiztegia baliatzen baitu. Sexua esplizitutasunez tratatzeko prest beti, irakurlearen sentsibilitatea mintzera irits daiteke zenbaitetan. Baina itsuskeriaren estetika maite du eta ausarki defendatzen du estilo berezi hau, nahiz eta itsuskeriari balio estetikoa aitortzeko

erreparoa bertan dirauen oraindik. Edozein modutan, Proulxek berezkoa du estilo sendo-bortitz hori. Emakume honek ukabilkadak jaurtikiko balitu bezala idazten du eta horrexegatik, frantses teoriko feministek aldarrikatutako “idazkera femeninoa”ren postulatuari aurre eginez, errealismo zikinaren korrontetik askoz hurbilago kokatzen da.

Brokeback Mountain baserri-giroan txertatzen den ohiturazko narrazio gisa har daiteke, garbi izanez gero ipuinen irakurketan aurrera egin ahal aurkitzen ditugun berrikuntza etengabeek “ohiturazko” generoaren formulazioa berpentsatzera behartzen gaituztela; berrikuntza-multzo nagusia, esan gabe doa, lan honek aztertu dituen Amerikar Mendebaleko literatura mito, topiko edota estereotipoen deseraikitze, suntsipen eta berreraikuntzan datza. Irakurleon arreta bereganatzen duen beste alderdi bat paisaiaren handitasuna islatzen asmatzen duten deskribapenak dira. Idazkera-molde zuzena baliatzen du Proulxek, bere estilo narratiboa sintetikotasunetik abiatzen da; benetan harrigarria da esaldi laburren bidez esanahirik konplexuenak ere arazorik gabe adierazteko autore honek erakusten duen trebetasuna.

Ziurrenik *Brokeback Mountain* istorioaren inguruan gehien komentatu izan den alderdia kontaketa *tempo*arena da. Bitxia da diskurtsoa eta argumentuaren arteko kontrastea; izan ere, narrazioaren erritmoa arras patxadatsua den bitartean, argumentuak erritmo bizia ezartzen du eta 39 orrialde eskasetan protagonisten bizitzako 20 urte hartzen ditu barne. Nola azaldu daiteke hau? Alde batetik, arreta jarriz gero, konturatuko gara argumentuak garapen laua duela, hau da, protagonistek, beldurrak eraginda nonbait, ez dutela abiapuntua uzten. Egiatzki protagonisten arteko harremanean ezer gutxi aldatzen (eta gertatzen) da. Bestalde, testuaren zentzua hutsune edo espazio zuri anitzek bete eta osatzen dute. Proulx interpretazioa burutzeko orduan irakurleon parte-hartze aktiboa eskatzen duen idazlea izanik, isiltasunaren baliabidea kudeatzen maisua da.



BIBLIOGRAFIA

PROULX, Annie. *Brokeback Mountain*. En terreno vedado. Madrid: Siglo XXI, 2006.



FICTION BROKEBACK MOUNTAIN

Friendship and love and duty, dusty, right in the wilderness

BY ANNE PROULX

THEY WERE MEANT TO MARRY, probably in the quiet of a small, private chapel in the mountains of Wyoming. Jack Tripp had a good idea of what he wanted for his wedding. He wanted a simple ceremony, with a few close friends and family. He wanted a place where he could be with the woman he loved, and where she could be with him. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.

He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.



He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.



He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy. He wanted a place where they could be together, and where they could be happy.